BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

1855

EBAZPENA, 2012ko martxoaren 13koa, Osasun Publikoko zuzendariarena, Barakaldoko «Sanea Control, S.L.» sozietateak 2012ko otsailaren 20, 21 eta 22an emandako oinarrizko mailako ikastaroa gainditu duten ikasleei ingurumenerako eta elikagaien industriarako diren tratamendu bioziden aplikatzaile txartela (oinarrizko maila) banatzeko baimena ematen duena.

Ikusi da «Sanea Control, S.L.» (Ames, A Coruña) sozietateak bidali duen dokumentazioa, 2012ko otsailean emandako ikastaroen garapenari eta ikasleek ateratako probetxuari buruzkoa. Ikastaroa ingurumenerako eta elikagaien industriarako diren tratamendu bioziden aplikatzaileentzat zen (oinarrizko maila).

Kontuan izan behar da Osasun Publikoko Zuzendaritzak 2010eko ekainaren 3ko Ebazpenaren bidez baimena eman ziola «Sanea Control, S.L.» sozietateari oinarrizko mailako ikastaroak emateko. Ebazpen hori, hain zuzen ere, abenduaren 21eko 257/2004 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatzeko eman zen (257/2004 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofiziala sortzen duena). Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ingurumenerako eta elikagaien industriarako diren tratamendu bioziden aplikatzaile txartela (oinarrizko maila), ebazpen honen eranskin modura doan zerrendako pertsonei emateko agintzea.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Osasuneko sailburuordeari, ebazpena argitaratu eta hilabeteko epean,

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 13a.

Osasun Publikoko zuzendaria,
MARÍA MERCEDES ESTEBANEZ CARRILLO.

ERANSKINA

Ingurumenerako eta elikagaien industriarako diren tratamendu bioziden aplikatzaile txartela (oinarrizko maila) eskuratzeko baimena eman zaienen zerrenda

Izena	1. abizena	2. abizena	NAN	Txartel-zenbakia.
Julen	Agote	Zaballa	30618492H	0001/2012
Raúl	Fernández	Cruz	80070327J	0002/2012
Natalia	González	Lombera	45670044W	0003/2012
Roberto	Granja	Pérez	30645752T	0004/2012
M.ª Ángeles	Martín	González	14566011L	0005/2012
Juan Antonio	Rodrigo	Hortelano	12725449D	0006/2012